

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
agirika 'errieta,jazarraldi'	« Agirakarik ere ez zidan egin.»	(101)
ahausika 'zaunkaka'	«... <i>Rex</i> ahausika hasi zen eta edetik tenk egiten indar handiz...»	(72)
ahitu 'unatu, nekatu'	«...ez batak ez besteak; segurutik ajea izango zuten eta neu ere ahiturik nengoen.»	(38)
aiene 'deitorea, kexua'	«Geldi-geldi zegoen nire ondoan eserita,(...), eta aiene baten antzeko zerbait egiten zuen norbait garbitzen zuten bakoitzean.»	(12)
aje 'biharamona, ostea'	«...ez batak ez besteak; segurutik ajea izango zuten eta neu ere ahiturik nengoen.»	(38)
akordu 'oroitzapena'	«...gurasoak gartzelan daudenean baino ez dituzte eskutitzak idazten, bat-batean euren burua bakarrik ikusten dute eta umeen akordua etortzen zaie...»	(92)
alogera 'alokairua'	«Hemen alogerak herrian baino altuagoak dira eta hasieran ia-ia etxebizitzarik aurkitu ere ez genuen egin.»	(15)
amaibako 'amaigabeko, bukagabea'	«Baina hori hasieran izan zen, lau urte amaibako denbora dela uste genuenean.»	(92)
amatatu 'itzali'	«Ezin nuen argirik biztu, ze jendea harritu egingo zen leihotxoan argia ikusita eta segurutik norbait igoko zen amatatzera .»	(61)
antzara 'ahatearen familiako hegaztia'	« Antzara erreja jan beharrean, Polinesiako hondartzetako oilaskoa jaten dugu,eta debekatuta dago karpak jatea patatekin.»	(28)
antzeman 'igarri, asmatu'	«Horrela ikusita, inork ez lioke antzemango ustekabea eta espazioko untzia bailitzan gora-goraka jartzeko duen erraztasunari.»	(36)
arakatu 'aztertu, miatu'	«Eta, gainera, sarrera beti egoten da estalita, beti izaten du haitz edota zuhaiskaren bat. Beraz, lurra arakatu beharra dago.»	(48)
argizari 'kandela'	«Gabonetako zuhaitzaren ordeztan, argizari bat jarri zuen plater batean...»	(30)
aterpe 'babeslekua, estalpea'	«Inork telebisore edo bideoren bat bota izan balu, horiek ere bertan jarriko nituen eta horrela benetako superaterpea izango nuen...»	(58)
auhen 'aienea, kexa'	«... eta betagina aurkitu nuen ahoaren bazter batean eta bota egin nuen txu eginda. Zinkurinak auhen bilakatu ziren.»	(64)
aurrearreta 'prebentzioa'	«Amak orduantxe esanda jakin nuen aitak ez zuela aurrearretatzko kartzela zigorrik...»	(39)
aurrekari 'aurrekoa, aurretikoa'	«Lau urteko kartzela zigorra ezarri zioten eta ez zuen baldintzapeko askatasunik izango, lehendik ere aurrekariak ditu eta.»	(39)
bailitzan 'balitz bezala'	«Aita aberatsa da, jekea bailitzan .»	(27)
basa 'lokatza, lupetza'	«Ondorioz, hautsez beteriko orubea da gaur egun, kotxeen pieza ugertuz eta hondakinez eta basaz bete; eta erdi-erdian, hareazko hobia.»	(54)
bekoki 'kopeta'	«Atzamarrarekin bekokira seinalatu eta hauxe esan nion...»	(53)
berba 'hitza'	«Nori ikasi ote dizkio berbok? —esan zuen.»	(36)
berbatsu 'hitzontzia, berbatia'	«Datorren ikasturtean amaituko ditut ikasketak. Saltzaile legez lan egin nahi dut. Ulik berbatsua naizela dio eta horretarako balioko nuela.»	(111)
beren beregi 'berariaz'	«Geroago ulertu nuen ez nintzela oso zuhur ibili aldizkaria beren beregi aipatu nienean.»	(84)
betagin 'betortza'	«...ze orain haginarena dator eta, harrez gero, nik neuk behintzat erabat galdu nituen barrejurak.»	(59)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
betortz 'betagina'	«Inoiz irakurrita daukat lehoi eta otso basatiak hil egiten direla betortzen bat galtzen dutenean, hura gabe ez dute harrapakinak irensteko modurik eta.»	(59)
bidezidor 'bideska, laburbidea'	«Zehatz-mehatz ezagutzen nuen; bidezidor , zuhaitz eta harri guztiak ezagutzen nituen.»	(23)
bidezkotu 'bidezko bihurtu, zilegi egin'	«Ama negarrez hasi zen eta gero esan zuen aurreko gauean gertaturikoak ez zuela bidezkotzen horrela alde egiterik.»	(67)
birraitona 'aititaren aita'	«Aitona ere bai, baita birraitona eta herenaitona guztiak ere, denboratxoa dela hil baziren ere.»	(27)
birritan 'bi aldiz, bitan'	«...altxatu eta sukaldeko leihora irteten nintzen arin-arinka; birritan igo nintzen sabaitxora pijama hutsean...»	(62)
bizkartzain 'zaindari berezia'	«Denak etorri zitzaizkidan atzera galdezka ea argazki asko egin zizkidaten, zer sentitzen zen halako egoeran, bizkartzainik jarri zidaten...»	(83)
burusi 'ohe gaineko estalki lodia'	« Burusiaren azpitik begiratu eta hankak eta kulero gorriak ikusi nizkion.»	(38)
desalokatu 'alokairutik atera'	«Amak negartxo batzuk egin zituen ezin omen zuela gehiagorik jasan eta; gero, etxebizitza desalokatu eta diru piloa galdu behar atzera.»	(15)
dilista 'lenteja'	«Kartzelan dilista zopa eta espinakak arraultze frijituekin ere jaten dituztela azaldu behar izan nion...»	(87)
ederto batean 'primeran, ezin hobeto'	«Batzuetan ederto batean ibiltzen ginen.»	(26)
enbarazu 'traba'	«...eta ni, berriz, nire gela ziztrintxoan sartu nintzen inork enbarazurik ez egiteko.»	(18)
eraikin 'eraikitako obra'	«...eta gero eraikin osoa zeharkatu behar izan nuen...»	(8)
ergeltxo 'kokolotxo'	«Herbertek ergeltxo zirudien eta Berta lodi, berriz, beti nire atzetik...»	(26)
erresuskada 'erremuskada, purrustada'	«Gogor-gogor estutu ninduen eta musua ere eman zidala uste dut. Baina gutxira erresuskada egin zuen...»	(41)
errietan egin 'agiraka egin'	«...orduan, amonak telefonoz deitu zuen eta errietan egin zuten, eta gero amak negar gehiago egin zuten oraindik.»	(30)
esan ahalean 'gelditu gabe hitz egin'	«Denak niri begira lelotuta bezala, marmar eta marmar, eta esan ahalean nitaz.»	(18)
esekita 'zintzilik, eskegita'	«...eta, hala ere, beraiek hiltzen ziren amaieran gurutzetatik esekita , eta ez soldaduak.»	(61)
ezta hurrik eman ere 'inondik inora ere ez, inola ere	« Ezta hurrik eman ere . Gartzelan dilista zopa eta espinakak arraultze frijituekin ere jaten dituztela azaldu behar izan nion...»	(87)
ganorazko 'era egokizkoa'	«Pentsatu ganorazko zerbait; bestela, ezer gabe geldituko zara —esan zidan.»	(29)
gauzaeztan 'baliorik gabea, onurarik ez	«Eta zer duzu orain? Esan ea, zer duzu orain?! Gauzaeztana espetxean, besterik ez.»	(37)
giltzarrapo 'sarraila eske edo mugikorra'	«Harresiaren kontra nuen BMXa; giltzarrapo a kendu eta ikastetxerantz abiatu nintzen pedalei astiro-astiro emanez.»	(55)
gizabidetsu 'gizalegez jokatzeko duena'	«Arratsalde on, Lohman andrea —esan zuen gizabidetsu --, Berta dut izena eta Walterren klasekoa naiz.»	(87)
gizotso 'erdi gizaki erdi otsoa den izakia'	«BMWko morroia gizotso a-edo izan zitekeela pentsatzen hasi nintzen.»	(62)
gogaikarri 'aspergarri, nekagarria'	«...edota neka-neka eginda nengoelako haren jardun gogaikarriaz .»	(17)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
gogaitu 'aspertu'	«Dena dela, etxean ere gogaitu egiten nintzen izugarri, ze amak goiz osoa ematen zuen kanpoan, kutxan tekleatzen.»	(23)
goragale 'botagura, goitinahia'	«...gainera, berak ere goragaleak zituen nonbait, baina komunean neu egon, beraren zoritxarrerako.»	(14)
gorotz 'kaka'	«—Ez, ez. Txakur gorotza zapalduz gero zer gertatzen den, ba horixe jazotzen da zurrumurruekin ere.»	(85)
gurako 'nahi izango'	« Gurako nuen haien jolasak ikusi, baina segurutik galdera leloka jasiko zitzaizkidan.»	(31)
gurarik 'nahirik, nahian'	«Beste garai batzuetan esklabuak egoten ziren, zapaltzen zituzten jabeengandik ospa egin gurarik basora piztiak bailiran bizi izatera joanak...»	(67)
haizpe 'harpea'	«...itzela izan zen eta, jakina, nire metodoari jarraituz ezin inondik inora ere aurkitu, ez baitzen lurpeko benetako kobazuloa, maldan zegoen haizpe	(58)
handigura 'harroa, mamutxarra'	«...baina berriz ere kotxearen bestalderantz eramane zituen ibilkerak ikusita, handigura hutsa izan behar.»	(61)
haxe 'huraxe'	«...horrenbestez, zer nahi eta haxe egiteko modua zuen.»	(10)
hede 'uhala'	«... <i>Rex</i> adausika hasi zen eta hedetik tenk egiten indar handiz...»	(72)
herenaitona 'aititaren aitita'	«Aitona ere bai, baita birraitona eta herenaitona guztiak, denboratxoa dela hil baziren ere.»	(27)
hesteontzi 'urdaila'	«Karpa beti egoten da mahaiaren erdi-erdian, hesteontzian patata handia duela eta Gabonetako arbolari begira eta begira.»	(35)
higatu 'maiztu'	«Buztinezko lurra euriek higatuta zegoen eta bizikleta barruan sartu ahal zen, sastraken azpitik narraz eramanez; horra kobazuloaren neurria.»	(58)
hilibete 'ilargia osorik ikusten den	«Gehienetan oso itxura arruntekoak izaten dira eta ez dute ezer egiten, hilibetean izan ezik.»	(62)
horratio 'horratik, hala ere'	«—Ez duzu mutikoa eramateko asmorik izango, horratio! »	(39)
hutsopil 'airez betetako opila'	«Rogerren gurasoek hutsopil izugarria izango zuten eskutitzak irakurtzen hasiz gero.»	(44)
ihardetsi 'erantzun'	«Ba, erabakiren bat hartu eta idazteari ekin beharko nioke behingoan, ihardetsi zuen.»	(32)
ilexerlo 'kopetako ile mordo, frekiloa'	«Orain ile labur-laburra darama eta batzuetan ilexerlorean bat beltzez tindatzen du.»	(110)
iltzatu 'iltzez josi'	«Itzuli ginenean, dena zegoen elurrez estalita eta bizikletan ere ezin ibili ia, iltzaturik gelditzen zinen edo laban egin edo erori.»	(31)
inozo 'kaikua, kirtena'	«Dena hasi zen Hermannek egun hartan erakutsi nahi izan zizkidan bideo inozoekin .»	(7)
irakutzi 'urez edo likidoz garbitu'	«Hagina irakutzi eta neure ontzian utzi nuen eskubilarekin batera; gero jantokira itzuli nintzen.»	(64)
iruzur 'azpikeria'	«Ni ez naiz erraz-erraz erortzen halako iruzurretan .»	(53)
iskanbila 'astrapala, zalaparta'	«Nire ikasturteko bi musuka ibili ziren patioan atsedenealdian eta horrek itzelezko iskanbila eragin zuen.»	(44)
izei 'zuhaitz mota'	«...eta beraren baimenaz basotik ekarri nituen izei abarrez apaindu zuen.»	(30)
jagole 'zaintzaile'	«—Neumatikoaren aztarna, adibidez. Ez zuten bahitzaileek utzi, basoko jagolearen automobilak baino.»	(95)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
jardun 'aritu'	«...batzuetan behintzat, baina horretaz gero jardungo dut...»	(25)
jarleku 'eserleku'	«Johnnyk atzera egin zuen jarlekuan , arnasa sakon hartu zuen eta gero paperezko zapia eman zidan.»	(96)
jasan 'pairatu, nozitu'	«Betikoarekin hasten bada, hartu geure gauzak eta etxera berriro, edo hotelera, azkenengo txakur txikia gastatu behar badut ere berdin.»	
jauzi egin 'salto egin'	«Batzuetan, amets egiten dut gartzelari buruz eta neure burua ikusten dut bertan preso, edo aitarekin irratia entzuten, edo harresi altu grisetik jauzi egiten .»	(44)
jazo 'gertatu, agitu'	«—Ez, ez. Txakur gorotza zapalduz gero zer gertatzen den, ba horixe jazotzen da zurrumurruekin ere.»	(85)
jipoi 'astinaldi'	«Ia-ia hil, sekula halako jipoirik! Eta gero zentrora eraman eta BMXa erosi zidan.»	(33)
karraka 'korrika, lasterka'	«—...zeuenerantz zihoazen, Walter, zain izango dituzu, besterik jakin nahian dabilta nonbait... — karraka egin zuten denek batera.»	(75)
kirimilatu 'kizkurra'	«Orduan txakur bi eskatu nizkion, bata handia eta beltza, hagin zorrozduna; bestea, berriz, txikia eta zuria, ilea kirimilatua eta belarriak erorita...»	(29)
kliskatu begiak azkar-azkar itxireki'	«Gehienetan oso pertsona otzan eta isila da, beti ingurura begira bere begi polit horiek kliskatuz , eta hori neke aurpegirik jartzen ez duenean.»	(35)
konga 'dantza mota'	«Eta patiora ere irten ziren unetxo batean denak iladan konga dantzatzuz, kanpoko hotzari kasurik egin gabe.»	(22)
laga 'utzi'	«Hain serio esan zuenez, amak ezin izan zuen ezetzik eman eta joaten laga zidan.»	(94)
lar 'gehiegi'	«Bere ideia zen eta, egia esan behar badut, hasieran ez zidan barregura lar egin.»	(98)
likin 'likatsua, lingirda'	«Baina zertarako behar ote nuen nik limoi likinezko karamelo mizkina?»	(21)
lohihartzeko 'buzoa, lanerako janzkia'	«Aita oso zurbil zegoen, azala ere gris itxurakoa zuen, eta lohihartzeko urdina zeraman jantzita, laneko lohihartzekoen moduan.»	(41)
lorrindu 'alferrikaldu, zikindu'	«Etxera heldu nintzenean, amak belarriondokoa eman zidan oka egitean alkondara lorrintzearren .»	(14)
luna 'leiharra'	«Gurasoen logelan, armailuaren lunaren atzean, gutxienez hamar bideozinta bazeuden gorengo apalean ezkutatuta, hondo-hondoan.»	(11)
magurdi 'basafruitua, masustaren	«Zorionez , gizakion kasua bestelakoa da, ze fideo zopa, magurdi izozkia eta patata frijituak jan ditzakegu betagininik gabe ere.»	(59)
maina 'xera, ardura'	«Oheraino lagundu eta fereka eta maina itzelak egin zizkidan...»	(65)
makal 'handiak'	«Nik laguntalde horretakoa izan nahi? Baita zera ere! Barreak egiten ditut makalak gogoratzen dudak bakoitzean!»	(51)
mamala 'emakume txotxoloa'	«Harategiko mamalak baino ez zion beste bati esan: "Begira hor dator gure preso-andrea".»	(89)
matraileko 'masaileko, zartada'	«Behin "delitugile seme" deitu eta matrailekoa eman zidan.»	(34)
mizkin 'gauza ona soilik gustukoa	«Baina ni pozik nago herri mizkin hori eta Hermann inozoa utzi ditugulako.»	(15)
morroilo 'zerraila'	«Hura ere ireki egin zuten, baita atzera itxi ere barrura sartu ginenean; morroiloak zarata ikaragarria egin zuen.»	(40)
murmu 'oso aspergarria'	«Matematikako lanak kopiatzen uzten dit, baina bestela murmu hutsa da.»	(111)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
murrusa egin 'haserre tematu'	«—Konturatzen zara patruila osoa izan duzula egunetan denbora galtzen zure ipuin lerdo hori dela eta? — murrusa egin zidan.»	(96)
mustur 'muturra'	«Gainera, hobe hankak eduki okerrak, eta ez musturra! »	(9)
muxinka 'haserre'	«Edozein kasutan ere, aske utzi eta aulkian erori zen negar muxinka... »	(17)
narraz 'herrestan arrastaka'	«...gizonek kolpatu eta narraz eraman ninduten kobazuloraino, baina nik ihes egitea lortu omen nuen...»	(84)
oka 'botaka, goraka'	«Halako batean, oka egiteko larria etorri zitzaidan.»	(13)
oldarkor 'erasokor'	«...baina ama emakume oldarkorra bihur daiteke haserretzen denean eta ziur nengoen ipuin harekin sutan jarriko zena.»	(98)
oratu 'heldu, harrapatu'	«Baina hori entzutean, zoro baten moduan jarri zen, oratu eta eman-eman egiten hasi zitzaidan...»	(17)
ospa egin 'hanka egin, alde egin'	«Atsedendian ospa egin nuen.»	(66)
oste 'atze'	«Basoa ortuaren oste -ostean hasten zen.»	(22)
osteratxo 'pasio laburra, ibilalditxo'	«Hurrengo egunak bizikletan osteratxoak egiten eman nituen, kobazulorako erabilgarri zitzaidan guztia hartzen...»	(58)
otzan 'mantsoa, apala'	«Gehienetan oso pertsona otzan eta isila da, beti ingurura begira bere begi polit horiek kliskatuz, eta hori neke aurpegirik jartzen ez duenean.»	(35)
papagaitxo 'hegazti mota'	«Inondik inora ere ez! — papagaitxo eskatu nionean.»	(29)
pazko 'bazkoa, juduen jai nagusia'	«Baliteke , baina hirian egonda gaude gu, igazko Pazkoetan , zortzigarren mailako bati musuka; baina txantxetan bakarrik...»	(12)
sakakada 'bultzakada'	«Walterrek belderruzko beste ipuin bat kontatu nahi digu! —horixe esan zuen bakarrik. Horrexek eman zidan azkenengo sakakada. »	(65)
sakan 'sakonunea'	«Bidezodorrak zuhaiska zarratuak eta ezker-eskuinetara sastrakak dituen sakan antzeko bat zeharkatzen du.»	(57)
sakel 'poltsiko'	«Txartela sakel etik atera eta irakurri egin behar izan nuen...»	(20)
sano 'oso, biziki'	«Edozein modutara ere, sano nahigabetu nintzen...»	(59)
sastraka 'sasia, kapardia'	«Eta handixe ikusi nituen han behean, sastrakaren ostean ezkutaturik.»	(55)
sego 'gizena, gantza'	«Gero Herbertek kontatu zidan inork ez ziola Berta esaten, Segozko bola baino.»	(19)
sokorruka 'laguntza eskaka'	«Nik ez nuen hainbeste minik hartzen baina ama sokorruka hasten aitak jotzen zuen bakoitzean.»	(91)
sunda 'usaina, hatsa'	«Amonak atzera ere karpa prestatu zuen eta etxe guztia arrain sundaz beteta zegoen.»	(35)
tebisore 'tebisista'	«Hamaiketara arte ohean egon nintzen eta gero tebisorea biztu nuen...»	(20)
trikimailu 'azpikeria, maltzurkeria'	«—Hasteko, ikerketa guztia ezereztu beharko dut et agutzia trikimailu hutsa dela aitortu.»	(97)
tripala 'tripako mina'	«...ze bat-batean apartamentu osoa gelditu zen izoztuta eta zarata arraroak entzuten ziren edonon, eta gero tripalak ere hasi zitzaizkidan.»	(62)

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
txakur txiki 'txanpon mota bat, baliorik	«...azken txakur txikia gastatu behar badut ere berdin. Ez dut zertan jasanik, ezta ala?»	(34)
txilintxo 'kanpai txikia'	«Tarteka, erlojuak txilintxoa jotzen zuen; beste ordu-erdi bat, beraz, eta ni oraindik ere bertan.»	(49)
ugertu 'herdoildu'	«Ondorioz, hautsez beteriko orubea da gaur egun, kotxeen pieza ugertuz eta hondakinez eta basaz bete; eta erdi-erdian, hareazko hobia.»	(54)
ukondo 'ukalondo'	«Belaun eta ukondoak gogortuta nituen hotzaren hotzez.»	(67)
unanpraka 'praka tejanook, "blue jean"	«...batek anorak berde iluna eta unanprakak zeramatzen eta besteak, berriz zamar beltza, eta biok zerabiltzaten bota beltzak.»	(71)
untxe 'erbiaren antzeko animalia'	«Ni ehundaka aldiz ibilita nengoen handik, baina egun hartan untxe bat agertu zitzaidan bat-batean.»	(57)
urten 'irten'	«Elurra zela eta urten ezinik gelditzen nintzenez, ordenadorearekin ibiltzen nintzen tiroka...»	(31)
uztai 'arkua'	«Hainbeste coca-cola edan ondoren, jakina, txiza egin behar. Kontuz-kontuz begiratu eta (...), plataformatik egin nuen uztai zabala marraztuz.»	(22)
xingola 'banda'	«...eta belarra, berriz, oso xingola zuzen eta erregularrez ebakita, futbol zelaietan bezala.»	(40)
zamar 'txamarra'	«...batek anorak berde iluna eta unanprakak zeramatzen eta besteak, berriz zamar beltza, eta biok zerabiltzaten bota beltzak.»	(71)
zamau 'mantela'	«...erortzen da klak eginda, eta txipristinez betetzen du den-dena eta amona, jakina, sutan jartzen da bere zamau zuria atzera ere lorrinduta ikustean.»	(35)
zantzo 'irrintzia'	«Halako batean, barre zantzoka hasi ginen biok. Nik ez nekien berogailuek nolako neurria izaten duten eta...»	(86)
zarratu 'ugaria, sarria'	«Kobazuloa barik, maldan zegoen hutsunea zen, eta sastraka zarratuek estaltzen zuten.»	(58)
zeharo 'guztiz, erabat'	« Zeharo ilada luzea zegoen beraren kutxaren ondoan.»	(20)
zelatatu 'zelatan egin, espiatu'	«Eta bide batez kobazuloan jarri dudana koartel nagusia zelatatuko duzue. ezta?»	(53)
zentsategi 'zentsarazteko tokia'	«...eta betiko beste mehatxu guztiak: zainak ebakiko zituela eta zentsategian sartuko ninduela...»	(36)
zinez 'benetan'	«Hotzak jota nengoen —esan nion, eta egia da, bene-benetan ezan nuen, zinez .»	(25)
zinkurinka 'arrekuraka, kaxuka'	«Aurpegia ikusi eta sudurretik ere odoletan nengoela nabaritu zuenean, zinkurinka hasi zen, eskuei begiratu eta zinkurin baino ez zuen egiten.»	(64)
ziria sartu 'adarra jo'	«Agurea etorri zitzaidan gogora eta hark egingo zituen barre zantzoak guztiei ziria sartu niela ikusi ahal izango balu.»	(96)
zirrargarri 'hukigarria, kristorena'	«Eta gero berriz kontatu nuen guztia eta bederatzigarren mailakoek ere galdera piloa egin zidaten eta denek iritzi zioten izugarri, interesgarri eta zirrargarri .»	(75)
zirritu 'zirrikitu'	«Zirritutik begiratu eta Berta ikusi nuen beste aldean, eta zirritutik lodi-lodi ikusten zen, eta biribil-biribil bola baten moduan.»	(86)
zirtakatu 'txinpartak bota'	«Itsaso guztiak zirtakatzen du eta biztu egiten dela dirudi.»	(28)
ziztrin 'oso-oso txikia'	«Ondoren, lo egitera joan zen eta ni, berriz, nire gela ziztrintxoan sartu nintzen...»	(18)